BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

3930

EBAZPENA, 2015eko irailaren 7koa, Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariarena, Diversey España, S.L. sozietateak Oiartzunen 2015eko ekainaren 22tik 26ra emandako oinarrizko mailako ikastaroa gainditu duten ikasleei ingurumenerako eta elikagaien industriarako diren tratamendu bioziden aplikatzaile-txartela –oinarrizko mailakoa– emateko baimena ematen duena.

Ikusi da Madrilgo Diversey España, S.L. sozietateak bidali duen dokumentazioa, 2015eko ekainaren 22tik 26ra arte ingurumenerako eta elikagaien industriarako diren tratamendu bioziden aplikatzaileentzat emandako oinarrizko mailako ikastaroaren garapenari eta ikasleek ateratako probetxuari buruzkoa.

Kontuan hartu da Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak baimena eman ziola Diversey España SL sozietateari oinarrizko mailako ikastaroak emateko (2010eko ekainaren 3ko Ebazpena). Ebazpen hori, hain zuzen ere, abenduaren 21eko 257/2004 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatzeko eman zen (257/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofiziala sortzen duena). Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Agintzea ebazpen honen eranskinean ageri den zerrendako pertsonei eman diezaieten ingurumenerako eta elikagaien industriarako tratamendu bioziden aplikatzaile-txartela (oinarrizko maila).

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osasuneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratzen den egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 7a.

Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria,
MARÍA DORRONSORO IRAETA.

ERANSKINA

INGURUMENERAKO ETA ELIKAGAIEN INDUSTRIARAKO TRATAMENDU BIOZIDEN APLIKATZAILE-TXARTELA (OINARRIZKO MAILAKOA) ESKURATZEKO BAIMENA EMAN ZAIENEN ZERRENDA

Izena	1. abizena	2. abizena	NAN:	Txartel-zenbakia
Josué	Bravo	Esnal	44144962G	0060/2015
Sebastián	Brit	Lizarraga	15939564N	0061/2015
Luis Fernando	González	Martín	34090802H	0062/2015
Cristina	Herrán	Rodríguez	15260706E	0063/2015
Cándido	Manterola	Azcue	72444603P	0064/2015
Erik	Olalde	Álvarez	72473430Q	0065/2015
María Teresa	Redondo	González	15990661A	0066/2015